Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 1/2021 Instrukzioa, otsailaren 8 koa, honen bidez, zenbait irizpide ezartzen dira, bermerik gabeko gerorapenen arloan egindako aldaketei dagokienez, zeinak 4/2021 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiarena, urtarrilaren 19koa) eta 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 7. artikuluaren bidez (abenduaren 1ekoa, COVID-19arekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa) onetsi baitira

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 63. artikuluan agintzen duenez, zerga zorrak geroratu edo zatikatu egin daitezke, arau bidez ezarritako baldintzetan, ordaintzeko betebeharra duen pertsonak aldez aurretik eskatuta, baldin eta egoera ekonomiko-finantzarioak eragozten badio, aldi baterako, legez ezarritako epeetan ordaintzea.

Oro har, geroratutako edo zatikatutako zorren ordainketa behar bezala bermatu behar da, nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak (Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 38. artikuluan zenbait kasu ezartzen dituen, eta kasu horietan ez da bermerik eskatzen zor jakin batzuk geroratzeko, haien zenbatekoa eta ordaintzeko epea kontuan hartuta.

Ondorio horietarako, COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko agintari eskudunek hartutako euste neurriek enpresen sektore zabal batean eragiten ari diren likideziarik ezaren egoera aintzat hartuta, txikiagoak direnetan bereziki, 2021eko urtarrilaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretua (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua aldatzen duena) argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Foru dekretu horren helburua da, besteak beste, bermerik eskatu gabe geroratu edo zatikatu daitezkeen zorrak ordaintzeko zenbatekoak eta epeak handitzea, eta aukera emango du zor horiek nahitaez zenbateko bereko hilerokoetan ordaindu beharrik ez izatea.

Hala, urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretu hori indarrean jarri zirenetik, 2021eko urtarrilaren 21etik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan agintzen du honako zor hauek geroratu daitezkeela bermerik eman gabe: a) obligaziodun bakoitzak ordaintzeke dituen zorren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa ez bada, betiere gehienez berrogeita zortzi hilerokotan kitatzen badira (aurreko kopuru bereko 20.000 euro eta hogeita hamasei hilerokoen aldean); b) obligaziodun bakoitzak ordaintzeke dituen zorren zenbatekoa 100.000 eurotik gorakoa ez bada, betiere gehienez hogeita hamasei hilerokotan kitatzen badira (aurreko kopuru bereko 50.000 euro eta hogeita lau hilerokoen aldean); c) obligaziodun bakoitzak ordaintzeke dituen zorren zenbatekoa 500.000 eurotik gorakoa ez bada, betiere gehienez hogeita lau hilerokotan kitatzen badira (kopuru horretarako aurrez eskatzen zen kopuru bereko hamabi hilerokoen aldean).

Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 30.1 artikuluaren azkeneko paragrafoan (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretuak emandako idazketan) ezartzen duenez, bermerik gabeko geroratze horiek automatikoki emango dira, betiere ordaintzera behartutako pertsonak geroratzeko eskaera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezten badu, eta eskaera horrek xede horretarako finkatutako gainerako baldintzak betetzen baditu. Aurrez, geroratze automatikorako aukera soilik ematen zen 20.000 euro baino gehiagoko zorrak ez zirenean, eta gehienez kopuru bereko hogeita hamasei hilerokotan ordaindu behar zirenean.

Berme eskaerarik gabeko geroratzeen zenbateko eta epe berri horiek 2021eko urtarrilaren 21etik aurrera aurkeztutako geroratze eta berriz aztertzeko eskaerei aplikatu ahal zaizkie, bai eta data horretan ebazteke

zeudenei ere.

Zehazki, berriz aztertzeko eskaeretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretuaren azken xedapen bakarrak ezartzen du berriz aztertu beharreko geroratzeen epeak luzatu ahal izango direla, gehienez ere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduaren 38. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakien idazketa berrian ezarritako gehieneko mugarekin, une horretan dagoen zor biziaren zenbatekoa kontuan hartuta. Horrenbestez, berriz egindako azterketa horiek bermerik gabe eman daitezkeen ezartzeko, kontuan hartu behar dira, alde batetik, une horretan dagoen zor bizia, eta bestetik, berriz aztertu beharreko geroratzea ematen denetik igarotako epealdia; izan ere, onartutako luzapenak eragin dezake epea gaur egun arututakoaren berbera den gehienekora zabaltzea (berrogeita zortzi, hogeita hamasei edo hogeita lau hileroko, kasuaren arabera), baina ez gainditzea, jadanik igaro den epealdia aintzat hartuta.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritako baldintza berriak jadanik emandako geroratzeei eta berriz egindako azterketei aplikatu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiko urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak honako hau arautzen du: geroratze horien epeetako kobrantza etetea, harik eta eskaera horiek ebazten diren arte, eta berandutze-interesak sortuko dira.

Bestalde, izaera iragankorrarekin denboran mugatuagoa izanik, COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko hartu behar diren neurriek sortutako likidezia arazoei berehala erantzuteko, abenduaren 1eko 11/2020 Goru Dekretua Arauemaileak (COVID-19ari lotutako luzapen neurriei eta premiazko beste neurri batzuei buruzkoak), 7. artikuluan arautzen du zerga zorrak salbuespenez geroratzeko aukera berri bat ematea jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei, bermerik ezarri gabe eta berandutze interesik sortu gabe.

Zehazki, abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemaileak 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, zergadun horiek salbuespenezko geroratze horri heldu diezaiokete, autolikidatzeko eta ordaintzeko epea 2021eko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean amaitzen zaien zorrei dagokienez. Kasu horietan, horrela geroratutako zorren ordainketa hiru hilabetez etengo da, horietako bakoitza aitortzeko eta ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ondoren, zenbateko bereko hileko sei kuotatan zatituta ordaindu beharko dira. Beraz, salbuespenezko geroratze berri hori ez dator bat martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean, COVID-19aren ondoriozko premiazko zerga neurriei buruzkoan, arututakoarekin. Dekretu horretan, zor geroragarri guztiak autolikidatzeko eta ordaintzeko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1ean amaitu zen (beraz, ordaintzeko egutegi bakarra egon da guztientzat).

Horregatik guztiagatik, zergapekoei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emateko, komeni da irizpide argi batzuk ezartzea honako foru dekretu hauen bidez bermerik gabeko geroratzeen arloan sartutako aldaketa horiek guztiek eragiten dituzten gai berritzaileei buruz: Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretua, eta abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemailea (COVID-19ari lotutako luzapen neurriei eta premiazko beste neurri batzuei buruzkoa).

Gainera, bermerik gabeko geroratzeei berariaz lotu gabeko beste gai batzuk ere argitu behar dira, haiei modu erabakitzailean eragiten dietenak.

Azaldutako guztia aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT

1. Berme eskaerarik gabeko geroratzeak. Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan emandako idazketa berria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005Foru Arau Orokorrak 63. artikuluan agintzen duenez, zerga zorrak geroratu edo zatikatu egin daitezke, arau bidez ezarritako baldintzetan, ordaintzeko betebeharra duen pertsonak aldez aurretik eskatuta, baldin eta egoera ekonomiko-finantzarioak eragozten badio, aldi baterako, legez ezarritako epeetan ordaintzea.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 125/2019Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 25. artikuluan honako hau azpimarratzen du: askotariko zergak eta izaera publikoko gainerako sarrerak erregulatzen dituen araudian xedatutakoa alde batera utzi gabe, zorrak ordaintzea geroratu eta zatikatu daiteke, borondatezko epealdian nahiz betearaztekoan, obligaziodunak aurrez eskaera eginez, baldin eta haren egoera ekonomiko-finantzarioak ez badio uzten ordainketa modu iragankorrean egiten.

Hizpide dugun kasuan, manu horiek, besteak beste, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak, geroratzeko edo zatikatzeko eskaerei buruzkoak, 27. artikuluan garatzen ditu, eta haren 2.a) zenbakian xedatzen da geroratzeko eskaerak justifikazio bat izan behar dutela, hau da, zorrak ordaindu ezinaren egoera iragankorra dela, diruzaintzako zailtasunak eragin dituzten arrazoien deskribapen eta justifikazio bat barne.

Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 30.1 artikuluan ezartzen duenez, erregelamendu bereko 38. artikuluak 1., 2. eta 3. zenbakietan agindutakoaren arabera bermea eratzea eskatzen ez denean, geroratzeak automatikoki emango dira, betiere Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eskatzen badira, eta horretarako eskatutako gainerako betekizunak betetzen badira.

Ondorio horietarako guztietarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren zazpigarren zenbakiak idazketa berria eman die Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduaren, bermerik eskatu gabeko geroratzeei buruzkoaren, 38. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakiei, bermerik eskatu gabe geroratu edo zatikatu daitezkeen zorren zenbatekoak handitzeko, geroratze edo zatikatze horiek itzultzeko epeak luzatzeko, eta zenbateko bereko kuotak ordainduz haiek kitatu beharrik ez izateko aukera emateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan xedatutako idazketa berri hori (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretuak emana), alde batetik, 2021eko urtarrilaren 21etik aurrera aurkeztutako geroratzeko eskaerei aplikatu ahal zaie, eta bestetik, data horretan ebazteke zeudenei.

Horren ondorioz, zergadun guztiei aplikatu ahal zaizkien irizpide orokorrak ezarri behar dira, honako hau zehazte aldera: noiz dakigun Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskaerek eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela automatikoki onartuak izan daitezen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 30.1 eta 38. artikuluetan adierazitakoa betez. Bereziki, geroratutako zorrak ordaindu ezinaren egoera iragankorra dela arrazoiz egiaztatutzat jotzeko moduko ordaintzeko egutegi bat

ezartzeari eta betetzeari dagokionez.

1.1. Zorren zenbateko osoa 50.000 eurotik gorakoa ez izatea obligaziodun bakoitzeko.

Urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretua indarrean jarri ostean, 2021eko urtarrilaren 21ean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38.1 artikuluak agintzen du ez dela bermerik eskatuko zorrak geroratzeko, baldin eta obligaziodun bakoitzak zor duen zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa ez bada, eta zor horiek gehienez berrogeita zortzi hilerokotan kitatzen badira, ondorio horietarako geroratzearen interesak kontuan hartu gabe.

Horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erregelamenduak 38.1 artikuluan aipatutako zorren zenbatekoa 20.000eurotik 50.000eurora igotzen da, geroratze horien gehieneko hilerokoen kopurua hogeita hamaseitik berrogeita zortzira luzatzen da, eta hileroko horiek nahitaez zenbateko berekoak izateko betebeharra kentzen da.

Hasieran, geroratze horiek bi eratara kitatu ahalko dira:

a) Kopuru bereko berrogeita zortzi hileko kuota ordainduz.

b) Kuotak pixkanaka ordainduz, egutegi honen arabera:

b.1) geroratzearen lehenengo urtean, geroratuko zorraren %5 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.2) geroratzearen bigarren urtean, geroratuko zorraren %25 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.3) geroratzearen hirugarren urtean, geroratuko zorraren %30 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.4) geroratzearen laugarren urtean, geroratuko zorraren %40 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz.

Aurrerago, zergadunei ordaintzeko beren egutegia aukeratzen utziko zaie; nolanahi ere, aurreko b) letran zehaztutako gutxieneko ordainketak errespetatuko dira. Hala, zergadunek zorra ordaintzeko epea aurreratu ahalko dute a) eta b) letretan ezarritako egutegiekiko, baina ezingo dute atzeratu b) letran finkatutako gutxienekoak baino gehiago. Hortaz, aurreko b) letran ezarritako gutxienekoa ordaindu beharko da une bakoitzean.

1.2. Zorren zenbateko osoa 100.000 eurotik gorakoa ez izatea obligaziodun bakoitzeko.

Urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretua indarrean jarri ostean, 2021eko urtarrilaren 21ean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38.2 artikuluak agintzen du ez dela bermerik eskatuko zorrak geroratzeko, baldin eta obligaziodun bakoitzak zor duen zenbatekoa 100.000 eurotik gorakoa ez bada, eta zor horiek gehienez hogeita hamasei hilerokotan kitatzen badira, ondorio horietarako geroratzearen interesak kontuan hartu gabe.

Horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erregelamenduak 38.2 artikuluan aipatutako zorren zenbatekoa 50.000eurotik 100.000eurora igotzen da, geroratze horien gehieneko hilerokoen kopurua hogeita lautik hogeita hamaseira luzatzen da, eta hileroko horiek nahitaez zenbateko berekoak izateko betebeharra kentzen da.

Hasieran, geroratze horiek bi eratara kitatu ahalko dira:

a) Kopuru bereko hogeita hamasei hileko kuota ordainduz.

b) Kuotak pixkanaka ordainduz, egutegi honen arabera:

b.1) geroratzearen lehenengo urtean, geroratuko zorraren %7,5 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.2) geroratzearen bigarren urtean, geroratuko zorraren %40 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.3) geroratzearen hirugarren urtean, geroratuko zorraren %52,5 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz.

Aurrerago, zergadunei ordaintzeko beren egutegia aukeratzen utziko zaie; nolanahi ere, aurreko b) letran zehaztutako gutxieneko ordainketak errespetatuko dira. Hala, zergadunek zorra ordaintzeko epea aurreratu ahalko dute a) eta b) letretan ezarritako egutegiekiko, baina ezingo dute atzeratu b) letran finkatutako gutxienekoak baino gehiago. Hortaz, aurreko b) letran ezarritako gutxienekoa ordaindu beharko da une bakoitzean.

1.3. Zorren zenbateko osoa 500.000 eurotik gorakoa ez izatea obligaziodun bakoitzeko.

Urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretua indarrean jarri ostean, 2021eko urtarrilaren 21ean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38.3 artikuluak agintzen du ez dela bermerik eskatuko zorrak geroratzeko, baldin eta obligaziodun bakoitzak zor duen zenbatekoa 500.000 eurotik gorakoa ez bada, eta zor horiek gehienez hogeita lau hilerokotan kitatzen badira, ondorio horietarako geroratzearen interesak kontuan hartu gabe.

Horrenbestez, 500.000 eurotik gorakoak ez diren zorren geroratze horien gehieneko hilerokoen kopurua hamabitik hogeita laura luzatzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erregelamenduak 38.3 artikuluan aipatzen direnak, eta hileroko horiek nahitaez zenbateko berekoak izateko betebeharra kentzen da.

Hasieran, geroratze horiek bi eratara kitatu ahalko dira:

a) Kopuru bereko hogeita lau hileko kuota ordainduz.

b) Kuotak pixkanaka ordainduz, egutegi honen arabera:

b.1) geroratzearen lehenengo urtean, geroratuko zorraren %20 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz;

b.2) geroratzearen bigarren urtean, geroratuko zorraren %80 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuotak ordainduz.

Aurrerago, zergadunei ordaintzeko beren egutegia aukeratzen utziko zaie; nolanahi ere, aurreko b) letran zehaztutako gutxieneko ordainketak errespetatuko dira. Hala, zergadunek zorra ordaintzeko epea aurreratu ahalko dute a) eta b) letretan ezarritako egutegiekiko, baina ezingo dute atzeratu b) letran finkatutako gutxienekoak baino gehiago. Hortaz, aurreko b) letran ezarritako gutxienekoa ordaindu beharko da une bakoitzean.

1.4. Gutxieneko hileroko kuotak.

Atal honen aurreko zenbakietan xedatutako hileroko kuoten zenbatekoa 10 euroko gutxienekoa izango da termino absolutuetan, orain arte eskatu izan den gutxieneko zenbatekoaren aldean (100euro).

1.5. Geroratze gehiagorako eskaerak, beste batzuk indarrean izanik.

Geroratze gehiago eskatzen denean, indarrean besteren bat izanik, eta egoera horrek atal honen aurreko zenbakietan ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen baditu, lehenengo geroratzea berregingo da, muga berriak aintzat hartuta.

2. Bermerik gabeko geroratzeak berriz aztertzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 30.7 artikuluan adierazten duenez, ordainketa geroratzea ebatzi ondoren, ezin izango dira aldatu zenbatekoak eta geroratzearen baldintzak, zordunak behar bezala justifikatutako gerora sortutako arrazoiengatik izan ezik; kasu horretan, berriz aztertzeko eskaera horiek ebazteko eskumena zehaztuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 26. artikuluan xede horretarako ezarritako arau orokorrak kontuan hartuta.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretuak azken xedapen bakarrean dioenez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan jasotako idazketa berria 2021eko urtarrilaren 21etik aurrera (edo data horretan ebazteke daudenak) aurkeztutako eskaerei aplikatu ahal zaie; hala, erantsi du, kasu horietan berriz aztertu nahi diren geroratze epeak luzatu ahalko direla idazketa berri horretan finkatutako gehieneko berbera arte, une horretan dagoen zor biziaren zenbatekoa aintzat hartuta.

Beraz, berriz aztertzeko eskaera horietan, honako hauek kontuan hartu behar dira: 1) une horretan dagoen zor biziaren zenbatekoa; 2) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritako ordaintzeko gehieneko epea; 3) berriz aztertu nahi den geroratzetik dagoeneko igaro den denbora, epea 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbaki horietan ezarritako gehieneko berbera arte luzatzeko aukera ematen baitu, baina ez gainditzekoa (igaro den denbora kontuan hartuta).

Azken batean, eraginkortasuna galdu ez duten emandako geroratzeak berriz aztertzeko eskaeretan, horien gehieneko iraupen berria kalkulatzeko, bermea ematea eskatu beharrik gabe, bai eta ordaindu beharreko gutxieneko kuotak kalkulatzeko ere, une horretan dagoen zorraren saldo bizia kontuan hartuta eman daitekeen gehieneko epe berriari kendu beharko zaio berriz aztertu beharreko geroratzetik igarotako aldia.

Halakoetan, berriz aztertu nahi diren geroratzeak bi eratara kitatu ahalko dira:

a) Falta den epealdian zenbateko bereko hileko kuotak ordainduta, harik eta agortzen den arte Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan xedatutako gehieneko epea, une horretan dagoen zor biziaren saldoa aintzat hartuta.

b) Pixkanaka kuotak ordainduz, instrukzio honen aurreko 1.1, 1.2 edo 1.3 zenbakien b) letran ezarritako eran. Kasu horietan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan xedatutako gehieneko epea agortu arte falta den epealdia (hilerokotan adierazita eta une horretan dagoen zor biziaren saldoa aintzat hartuz kalkulatuta) zati 4, zati 3 edo zati 2 egingo da, hurrenez hurren, eta sortzen diren denbora tarteetan urte bakoitzari dagozkion kuotak eskatuko dira, instrukzio honen aurreko 1.1., 1.2 edo 1.3 zenbakietan ezarritakoaren arabera. Aurreko zatiketaren emaitzak hileko kopuru osoa ematen ez badu, goiko edo beheko unitatera biribilduko dira lehen denbora tarteetako hileko kuotak, lortutako dezimalak 0,5 edo gehiago diren edo ez kontuan hartuta, eta efektu hori azken tartean zuzenduko da.

Hala, 18.000euroko zorra badago, hasieran 36 hilerokotan geroratua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduaren 38.1 artikuluaren aurreko idazketan ezarritakoaren arabera (zorra berriz aztertzea eskatzen da bertan), zor bizia 12.000 eurokoa denean, ordaintzeko epea urtebetez luzatu ahal izango da (manu horretan gaur egun ezarritako berrogeita zortzi hilerokora arte gehienez, 50.000 eurotik gorakoak ez diren zorretarako). Beraz, ordainketen egutegi berria hauetakoren bat izan ahalko da:

a) Kopuru bereko hogeita hamasei hileroko.

b) Kuotak pixkanaka ordaintzea, egutegi hau betez:

b.1) lehenengo bederatzi hilabeteetan (1.tik 9. hilabetera), berriz aztertzeko datan ordaintzeke dagoen zorraren %25 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuoten bidez.

b.2) hurrengo bederatzi hilabeteetan (10.etik 18. hilabetera), berriz aztertzeko datan ordaintzeke dagoen zorraren %25 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuoten bidez.

b.3) hurrengo bederatzi hilabeteetan (19.etik 27. hilabetera), berriz aztertzeko datan ordaintzeke dagoen zorraren %30 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuoten bidez;

b.4) azkeneko bederatzi hilabeteetan (28.etik 36. hilabetera), berriz aztertzeko datan ordaintzeke dagoen zorraren %40 ordaindu beharko da, kopuru bereko hileko kuoten bidez.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 38. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan -Bizkaiko Foru Aldundiko urtarrilaren 19ko 4/2021Foru Dekretuak emandako idazketan- ezarritako baldintza berriak hura indarrean jartzen denean emandako geroratzeen gainean berriz egindako azterketei aplikatu ahal izateko, foru dekretu horren xedapen iragankor bakarrak honako hau arautzen du: geroratze horien epeen kobrantza etetea, harik eta eskaera horiek ebazten diren arte, dagozkien berandutze interesak sortuz.

Telematikoki berriz aztertzeko eskaerak L45 eredua baliatuz aurkeztu beharko dira.

3. Zenbateko txikiagoko atzerapenerako edo zatikapenerako eskaerak ez onartzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 28. artikuluan arautzen du zerga bilketako organo eskudunak ez duela onartuko 300euro baino gutxiagoko zorrak geroratzeko edo zatikatzeko eskaerarik, jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoenak izan ezik.

Ondorio horietarako, geroratze eskaerak era askotako zorrei eragiten dienean, haien guztien baturaren zenbatekoa kontuan hartu beharko da, eta ez haietako bakoitzaren banakako zenbatekoa.

Hortaz, 300 euro baino gutxiagoko zorrak geroratu eta zatikatu ahalko dira, baldin eta horien geroratze edo zatikatzea beste batzuekin batera eskatzen bada, eta haiek guztien batura 300euro bada.

4. Lankidetza hitzarmenaren bidez, zuzenbide publikoko bere diru-sarrerak kobratzea Bizkaiko Foru Aldundiari agindu dioten udalekin dauden zorren egoerak geroratzeetan edo zatikapenetan zer eragin duen.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 28.1.c) artikuluan adierazten du zerga bilketako organo eskudunak ez dituela onartuko geroratze eskaerak, baldin eta eskatzaileak geroratuta (edo eskaera eginda), etenda ez dauden betearazpen aldiko beste zor batzuk baditu.

Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 34.4 artikuluan arautzen du betearazpen bidean beste zor batzuk egoteak geroratzerik edo zatikatzerik eskatu gabe, edo eteterik gabe, honako hau dakarrela: alde batetik, aurrez emandako geroratze edo zatikatzeko erabaki guztien eraginkortasuna galtzea, eta bestetik, geroratutako zorrak berehala eskatzea, salbu eta betearazpen bideko zor horiek ordaintzen badira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005Foru Arau Orokorrak 60.3 artikuluan aipatzen duen hilabeteko epean.

Ondorio guztietarako, zuzenbide publikoko bere diru-sarrerak kobratzea Bizkaiko Foru Aldundiari agindu ez dioten udalekin, edo beste administrazio batzuekin (Gizarte Segurantza eta abar), betearazpen bidean dauden zorrak ez dakar honako hau: Bizkaiko Foru Ogasun horretan eskatutako geroratzeak automatikoki ez onartzea, eta jadanik emandakoen epemuga aurreratzea; beste udal edo administrazio batzuetan eskatutako geroratzeei eragitea, eta ezta haiek emandakoei ere. Eta alderantziz, zergadunen bat badago Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 28.1.c) eta 34.4 artikuluetan agindutako kasuren batean, ez dira kontuan hartu behar lankidetza hitzarmenaren bidez zuzenbide publikoko bere diru-sarrerak kobratzea Bizkaiko Foru Aldundiari agindu dioten udalekin dauden zorrak.

5. Abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen (COVID-19ari lotutako luzapen neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa) 7. artikuluaren zorren salbuespenezko geroratzea.

Abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemaileak (COVID-19ari lotutako luzapen neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa) 7. artikuluan arautzen du jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoentzako nahiz mikroenpresa eta enpresa txikietarako zerga zorrak salbuespenez berriz ere geroratzea, bermerik gabe eta berandutze interesik sortu gabe.

Abenduaren 1eko 11/2020Foru Dekretu Arauemaileak 7. artikulu horretan adierazitakoaren arabera, zergadun horiek salbuespenezko geroratze hori baliatu dezakete, beren borondatez autolikidazio eta diru-sarreren epealdia 2021eko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean amaitzen zaien zorrak daudenean, betiere borondatezko epealdiaren barruan eskatzen badute.

Zehazki, honako hauek baliatu dezakete salbuespenezko geroratze hori: azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauak (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa) 5. artikuluan adierazitako ildoan jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak (ondorio horietarako, jarduera ekonomikoak egiten dituzten errentak ematen dituzten erakundeak pertsona fisikoekin parekatzen dira, salbu eta bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiak pertsona juridikoak direnean); b) abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauak (Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) 56.1.b) artikuluan araututako %20ko tasan zergak ordaintzen dituzten mikroenpresak eta enpresa txikiak, edo, zerga arloan babestutako kooperatibak izanik (babestuak edo bereziki babestuak) %18ko tasan egitea, abenduaren 12ko 6/2018Foru Arauak (Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzkoa) 23.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Horrela geroratutako zorren ordainketa hiru hilabetez etengo da, horietako bakoitza aitortzeko eta ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretatik aurrera, kopuru bereko hileko sei kuotatan ordaindu beharko dira.

Ondorio horietarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 17.1.d) artikuluan zehazten duenez, ordainketak geroratzearen eta zatikatzearen konturako kargua hilabete bakoitzaren 25etik (edo hurrengo egun baliodunetik) hurrengo hiru egun baliodunera bitarteko epean izango da.

Horren ondorioz, salbuespenezko geroratze horietan ez da kuotarik eskatuko lehenengo hiru epemugetan (hilaren 25ean), zor bakoitzaren autolikidatzeko eta ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta, ondoren, geroratutako zenbatekoa kopuru bereko hileko sei kuotatan ordaintzea eskatuko da (kuota horiek kontuan kargatuko dira hilabete bakoitzaren 25aren edo hurrengo hiru egun baliodunen arteko epean).

Hala, adibidez, geroratutako zorren autolikidatzeko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea 2021eko urtarrilaren 25ean amaitu bazen, ordaintzeko egutegi hau izango dute:

1) 2021eko otsailak 25: ez da kuotarik ordainduko;

2) 2021eko martxoak 25: ez da kuotarik ordainduko;

3) 2021eko apirilak 25: ez da kuotarik ordainduko;

4) jarraian, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 17.1.d) artikuluan xedatutakoa betez, 2021eko maiatzetik urrira, biak barne, hilero kuota bat kargatuko da, geroratutako zorraren seirena, hilaren 25aren edo hurrengo egun baliodunaren eta hurrengo hiru egun baliodunen arteko epean.

Geroratutako zorren autolikidatzeko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea 2021eko otsailaren 1ean amaitu bazen, ordaintzeko egutegi berbera izango zuten, eta, epemuga geroago duten zorrek arau horiek aplikatu beharko dituzte, haietako bakoitzaren autolikidatzeko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epearen amaiera data kontuan hartuta.

Horrenbestez, laburbilduz, autolikidatzeko borondatezko epea otsailaren 25ean amaitzen duten zorrak hileko sei kuotatan ordaindu beharko dira 2021eko ekainaren eta azaroaren artean, biak barne; autolikidatzeko borondatezko epea martxoaren 25ean amaitzen duten zorrak hileko sei kuotatan ordaindu beharko dira 2021eko uztailaren eta abenduaren artean, biak barne; eta autolikidatzeko borondatezko epea apirilaren 26an amaitzen duten zorrak hileko sei kuotatan ordaindu beharko dira 2021eko abuztuaren eta 2022ko urtarrilaren artean, biak barne.

Bilbon, 2021ko otsailaren 16a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA
Sin.: Iñaki Alonso Arce.